

Garzonen autoa AEKren aurka Erreakzioak

# Gizarteko hainbat ordezkari kezka azaldu du AEK eta euskararen aurkako erasoagatik

*Euskararen eta Euskal Herriaren kontrako jardura adierazten du askorentzat*

F. Iriarte-I. Arrizurieta-J. Arruti-H. Gorostiaga- A. Erzibengoa / Gasteiz-Iruñea-Bilbo-Baiona-Donostia

**Baltasar Garzon Entzutegi Nazionalako epaileak AEKren aurka kalera-tutako ebazpen judicialak kezka era-**

**gin du euskal gizarteko zenbait ordezkariengan. Euskara, unibertsitate, kulturgintza, kirol eta beste zenbait arlotako ordezkariak gaiari buruz duten iritzia eman dute, EUSKALDUNON EGUNKARIAK eginiko eska-**

**erari jarraikiz. Gehienek, Garzonek AEKren aurka hasitako eginbide judicial horien atzean euskararen kontrako eraso ere ikusten dute, eta eginiko akusazioek funtsik ez dutela diote**

**Eugenio Arraiza • UEUko kidea**

**«Ez du inolako funtsik»**



►«Ez du inolako funtsik. Aspalididantik ezagutzen dut AEK eta bertan ikasi nuen euskara. Errazegi hartzen ari da jendea, baina hori frogatu egin beharko du. Gainera, harrigarria da EAEn modu batean izatea eta Nafarroan beste era batean izatea. Susmagarria ematen du eta ekitaldi orkestratu baten barruan egiten du. Orain arte hartu dituen erabakiaren ildo beretik doa hau ere».

**Antonio Karmona • Alaveseko jokalaria**

**«Errugabeak direla agerian utziko dute»**



►«AEK-k nire laguntza osoa du. Urtebete egon nintzen euskara ikasten eta lagun onak egin nituen. AEK-k izugarritzko lana egiten du, euskara bultzatzea oso garrantzitsua baita. Uste dut agerian geratuko dela inputatuen erugabetasuna. Izan ere, uste dut autoak ez duela inolako funtsik, eta, gainera, akusazioak frogatu behar dira».

**Benito Lertxundi • Abeslaria**

**«Euskal Herritik aurrera egiteko nahia sumatzen dutenean, berriz ere ikusiko ditugu halakoak»**



►«Alde batetik, egoeraren ondorioz oso nabaria da une honetan Garzonek eta orokorrean Madrildik zuzendutako estrategia: euskal mundutik



Joan den astean AEKren kontrako ebazpena kaleratu ondoren koordinakundeko ordezkariak egin agerraldia.

proiektatzen den nahia suntsitzen saiatzea, nahi horren beldur baitira. Bestetik, ezin da ahaztu beti aurka izango ditugula. Kasu honetan ETaren eta AEKren arteko harremanak aipatzen ditu; ikusi beharko da. Puntualki, gertaera honetan gelditu gabe Euskal Herritik sumatzen dutenean aurrera egiteko indarra dagoela, berriz ere ikusiko ditugu horrelakoak».

**Rosa Letamendia • Animalien aldeko batzordeko presidentea**

**«Oinarririk ez duten salaketa asko egiten ditu Garzonek»**



►«Ohituta gauden Garzoni entzuten ez dakit zer, eta gero ezer ez dagoela ikusten da. Hori beste sumario batzuetan ikusi dugu, eta beste arlo batzuetan ere

bai. Hor dago, esaterako drogaz leporaino omen zegoen itsasontziaren kontua. Ikusi genuen gero zer gertatu zen. Kasu honetan uste dut salaketa egitea ez dela nahikoa, gero frogatu behar baita. Horixe bera gertatu zen Pepe Rei kazetariarekin. Uste dut ez duela motibo nahikorik salaketa egiteko. Horregatik uste dut Garzonen jokaerak ez duela askorako balio»

**Txema Montero • Abokatua**  
**«Euskara irakatsi zidaten, oso modu eraginkorrean»**



►«Nik AEKri buruz dudan iritzia oso partikularra da, euskara ikasteko programa pertsonalizatua egin baitzidaten. Oso eraginkorrak izan ziren eta helburua bete genuen. Hizkuntza bat ikastean mun-

duaren ikuspegi ezberdin bat ere jasotzen duzula irakatsi zidaten. Nik asko eskertu nien hau guztia. Gainera, hedabide zehatz batzuetan esaten denaren aurka, ez zuen zerikusirik izan Espiritu Nazionalaren trebakuntzarekin, euskara irakastera mugatu ziren. Garzonen autoak txoke-autoak bezalakoak dira, barraka politiko batekoak dirudite».

**Beñat Gimenez • UDFko kontseilari nagusia**

**«Ez dut konprenitzen jujeek zer leporatzen dioten AEKri»**



►«Prentsa bidez jakin dut AEKren afera. Egia erran, ez dut sobera konprenitzen Espainiako jujeek zer leporatzen dioten AEKri. AEK denek ezagutzen

dugu. Lan handi eta ikusgarria egiten du Euskal Herri osoan euskararen zabaltzeko. AEK denetariko jendea bada, abertzale direnak eta ez direnak. AEK-k lan ona egiten du eta gustuko nuke hala segitzen balu».

**Anje Duhalde • Kantaria**

**«Publikoki agertzen den euskaltzale orori gerta dakioko gauza bera»**



►«Frantziar eta Espainiar agintariak buru gainean dabilta, hanka gainean ibili ordez.

AEK kriminalizatu nahi dutela gauza argia da, baina azken finean euskaltzale gisa publikoki agertuko den oro. Izugarriko mailua ezarri nahi digute buru gainean. Halako ekimenek nazka erreakzioa sorrarazten didate. Euskaldun guztiori egin digute eraso, baina ez dugu halako zentsurarik onartuko. Abertzaletasuna eta euskalzaletasuna deuseztatu nahi dute, eta oraino eginen dituzte halako ekimenak. Ez luzaz espero dut».

**Iñaki Perez de San Vicente • Blusen batzordeko lehendakaria**

**«Astakeria da»**

►«Martxa honetan guztiok espetxean amaituko dugu. Astakeria da. Uste dut akusazioak bigarren mailan geratzen direla, Garzonek edozer gauza sala baitezake. Arbitrariedade izugarria izan da eta autoak ez du inolako oinarri juridikorik. Ez dakit non amaituko den hau guztia».

**Joxerra Melguizo • Artista plastikoa**

**«Injustua eta adar jotzea izan da»**



►«Garzonek berean segitzen du, pentsaera bakararen aurkako zigortuz. Kasu honetan euskarari egokitu zaio, baina batek daki noraino iritsiko den. Agian egunen batean EAJ ukituko du. Uste dut injustizia izateaz gain, ardar jotze izugarria dela. Ez dakit noraino iritsiko den epaile hau, baina egiten dituen sumarioak ez dute inolako funtsik»

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du.)